INTERMITENTZIA - Azalpentxo bat (Anderrek idatzia)

Nik arte eszenikoetako errealitatea ezagutzen du batez ere, baina musikarieri dagokienez joko arauak berberak dira. Horren inguruan sortzen diren errealitateak ordea ezberdinak izango dira, lan egiteko moduak ezberdinak baitira, entseguak, diru laguntzak...

Zer da intermitentzia?

Frantzian esistitzen den lan estatutu bat, nolabait esateko, bere lanbide prekarioaren ondorioz zenbait onura ditu bestelako langabeen ondoan. Lan modalitate intermitenteak dituzten langileeri bideratua dago, hau da, kontratuak eta langabezia aroa kateatzen dituzten lanpostuak. Hastapenean zinemako produktoreek bultzatuta sortu zen 1936an, teknikarien beharra baitzuten produkzioak aurrera ateratzeko eta langileek (oraindik espezializatu gabe) nahiago zuten enpresa batetan lanpostu finkoa izan, estatutu hau sortu zuten beraz langile horiek egonkortasun ekonomikoa izan zezaten. Gerora, tankerako lanaldi motak zituzten arloetara zabaldu zen, teknikariak, artista interpreteak...

Nola lortzen da?

Gaur egun kalkulua honakoa da, urte beteko epean 507 ordu kotizatu behar ditu norbaitek bere diziplinako kontratuekin (musikari, aktore, teknikari... eta beste). Zer esanik ez, orduak bere balioa du, hau da, ezin ditugu 12 ordu (katxet 1 bezala izendatua) deklaratu 100€- rekin, orduek kostu minimoa dute, konstu minimo horretatik gora nahi dugun adina ordainduak izan gaitezke (aurrekontuek mugatuko gaituzte noski). Katxet baten (12 ordu) kostu minimoa 220€ ingurukoa da eta langileak gutxi gorabera erdia jasoko du.

507 ordu / 12 ordu bolo bat = 43 bolo gutxienez urte betean (bolo bakoitza 220€tan ordainduta, gutxienez)

Zertan datza?

Intermitentzia langabezia estatutu bat da berez. Estatutua lortzeko adina ordu lan egin (kotizatu) dituenak eskubidea du kotizatzen ez duen egunetan langabezia sari bat jasotzeko. Horretarako hilabete bakoitzaren amaieran kotizatu dituen orduak deklaratu behar dizkio Pôle emploi- ri (Sepe antzeko organismo frantsesa) honek ondoren hilabete horretako bere langabezia saria kalkula dezan.

Behin urte beteko epean goian aipatutako ordu horiek bete ditugunean estatutua lortuko dugu eta ondorengo 12 hilabeteetan diru sarrera minimo bat izango dugu. Zenbatekoa ez da denentzat iguala, gure orduak ordaindu ditugun diru kopuruaren araberakoa baizik. Kalkulu bat egingo digute eta eguneko diru kopuru bat iragarri (adibidez 50€). Horrek zera esan nahi du, hilabete amaieran 6 lanegun kotizatu baditugu eta hilabeteak 30 egun baditu, 24 eguneko langabezia saria jasoko dugula, hau da, 24x50=1200€

Nork finantzatzen du hori?

Assedic izeneko eta frantziako langile arlo guztien aportazioak jasotzen dituen solidaritate kutxatik finantzatzen da. Azken 20 urteetako gobernu ezberdinak oso maiz ari dira jartzen zalantzan sistema hau oso defizitarioa delakoan. Borroka sutsua izan da maiz, greba ugari, jaialdiak blokeatuak, manifestaldiak, estatutua defendatu eta are beste lan alorretara zabaltzeko eskatuz, adibidez sasoilariak edo garbitzaileak.

Berriztapena

Estatutua urtero berritu behar da, lehen aipatutako baldintza berdinetan.

Eneritz Furyakek honakoa gehitzen du:

Hemen gehituko nuke, gobernuek askotan Intermitentzia legeen kontra jo izan dutela, esanez "defizit" handiegia eragiten duela intermitentziako pentsioak ordaintzeak.

Artistek argudio horren kontra honakoa aldarrikatu izan dute Frantzian: askoz ere diru-galera handiagoak eragiten dituela "behartutako iruzurrak" pentsio horiek ordaintzeak baino.

Hemen ere hainbat azalpen sistema frantsesaren inguruan, umorez eta modu argi samarrean: https://www.malabaresensutinta.com/2019/01/la-intermitencia-el-regimen-de-los.html